

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4386

AGINDUA, 2023ko irailaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bitartez laguntzetarako deialdia egiten baita, Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzaitzaren kultura sustatzeko 2023-2024 ikasturtean.

EAEren Autonomia Estatutuak (abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua) 16. artikuluan honela dio: «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».

Beste alde batetik, bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen II. kapitulua Lanbide Heziketako Sistema Integratuari buruzkoa da. Lege horretan adierazitako xedeen artean, 21.1.a) artikuluan honako hau ezartzen da: jarduera profesionalak garatzeko gaitasuna ematea; batetik, sustapen profesionaleko itxaropen pertsonalak ase ahal izateko eta, bestetik, produkzio-sistemaren prestakuntza-beharrizanei erantzuteko.

Horretarako, 21. artikulua 2.e) apartatuan, adierazten da Eusko Jaurlaritzak dagoz-kion neurriak hartuko dituela ekintzaitza-gaitasuna garatuko duten programak sartzeko prestakuntza-eskaintzan.

Bestalde, EAEko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak, 3. artikuluko 2.c apartatuan, Lanbide Heziketako euskal sistemaren lehentasunezko helburu hau ezartzen du: Berrikuntza, sorkuntza, ekintzaitzarako gaitasuna eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) erabilera sustatzea, bai Hasierako Lanbide Heziketan, bai Enplegurako Lanbide Heziketan.

Era berean, aipatutako 4/2018 Legearen 8. artikulua ekintzaitzako ikaskuntzaren eremuari buruzkoa da. Artikulu horren 2. apartatuan ezartzen denez, ekintzaitzaren ikaskuntza-proiektuetan saiatuko da konpetentzia berriak garatzen ikasleen artean, sormenezkoak zein kontzeptuzkoak, ekintzaitzaren kultura sustatzera orientatuak eta jarduera erreal baten arabera finkatutako espezializazio praktikoa oinarrituta antolatutakoak.

Ildo berean, 4/2018 Legearen 9. artikulua 2. apartatuak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide heziketaren arloan eskumena duen sailak berariaz bultzatuko du berrikuntzaren eta ekintzaitzaren eremuko ikaskuntza- eta sustatze-ekintzak sartzeko, arlo horiek garatzeko beharrezkoa den prestakuntza ematea, eta bi eremu horiei lotutako proiektuak martxan jartzea.

Bestalde, Lanbide Heziketako VI. Euskal Planaren helburu eta ekintza-ildoetako batzuetan, ekintzaitzaren kultura sustatzea dago jasota. Aipatu beharrekoa da planaren 5. ardatza: «Giza garapena. Pertsonak eraldaketako protagonista gisa», 10.1 jardura-ildoak: «Ikaskuntza-eredua berronertzea eta sendotzea.», besteak beste helburutzat duena «Ekintzaitzaren kultura sustatzea ikaskuntza-ereduan» eta 10.2 jardura-ildoak: «Pertsonen talentua garatzea», zeinaren helburuen artean baitago «Gaitasun ekintzailearen bidez talentuaren garapena aberastea ikaskuntza-prozesu osoan».

2023ko irailaren 22a, ostirala

Testuinguru horretan, ekintzailtzaren kultura sustatzeko hainbat ekimen garatu dira. Funtsezko jardueretako bat ikasleek enpresa-arloko simulazio-proiektuak egitea da. Ikasketa-tresna horren bitartez, ikasleek zenbait kompetentzia garatzeko aukera dute, eta, modu horretan, profesional onak, enplegarriak, pertsona aktibo eta ekintzaileak, edo intraekintzaileak izango dira, eta lan-merkatu aldakor eta ezegonkorrari aurre egin ahal izango diote. Era berean, sentsibilizazioa piztu dakieke, autoenplegua ere aukeretako bat izan dadin.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2023. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago jasota. Plan estrategiko hori, berriz, Hezkuntza sailburuaren Agindu bidez onartu zen, eta Hezkuntza Sailko <https://www.euskadi.eus> webgunean argitaratu da.

Horregatik, kontuan hartuta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eremuko dirulaguntzak erregulatzeari buruzkoa; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra erregelamendua onartzen duena; abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, EAEko aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen berme eta itzulketen araubide orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak zehazten dituena, eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenak,

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

DEIALDIAREN XEDEA ETA BETEKIZUNAK

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Ikastetxe pribatu itunduei zuzendutako laguntzen deialdia egitea, ekintzailtzaren kultura sustatuko duten enpresa-arloko simulazio-proiektuak gara ditzaten Oinarrizko Lanbide Heziketako, Erdi Mailako edo Goi Mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloren bateko 2. mailan dauden ikasleen artean, 2023-2024 ikasturtean.

3 urteko iraupena duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan, deialdi hau 3. mailako ikasleentzat izango da soilik.

Parte hartzeko aukera emango zaie Enpresa eta Ekimen Sortzailea modulua egiten ari diren lehen mailako ikasleei.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

117.000 euro bideratuko dira helburu horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko Aurrekontu Orokorretan horretarako finkatutako aurrekontu-kredituaren arabera.

3. artikulua.– Onuradun izateko betekizunak.

1.– Ofizialki baimenduta egotea 2023-204 ikasturtean Oinarrizko Lanbide Heziketako, Erdi Mailako edo Goi Mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak emateko eta, de facto, hala egitea. Prestakuntza-ziklo horiek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra-ren 13. artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

2.– Eskakizun hauek betetzea deialdi honetan parte hartzeko:

a) Zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du hori betetzen dela, behar beste aldiz, ikastetxe eskatzaileen baimenik behar izan gabe, 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

Ikastetxe onuradunak egiaztapenaren aurka egin ahal izango du. Kasu horretan, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea galarazten dion zehapen penal edo administratiborik.
- Ez izatea zehapen administratiborik edo penalik inor diskriminatzeagatik sexuagatik edo ez betetzeagatik emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko araudia (Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea).
- Beteta izatea eska daitekeen beste edozein betebehar eta eskakizun, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Ezinbestekoa da baldintza horiek betetzea dirulaguntza ematen denetik dirulaguntza ordaintzen den arte.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta jarduerak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

1.a.– Diruz lagundu daitekeen jardueratzat hartzen da ikastetxe eskatzaileak kultura ekintzailea sustatzeko egindako ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektua, baldin eta gutxienez 20 puntu lortzen baditu. (12.1.4 artikulua).

1.b.– Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuak enpresa-arloko simulazio-azpiproiektuak ere izango ditu, ikasleek banaka egindakoak edo zenbait ikasleren artean lankidetzan egindakoak.

Betiere, ikasleek ikastetxeko irakasleen laguntza eta aholkularitza izango dute enpresa-simulazioko azpiproiektuak garatzeko.

1.c.– Azpiproiektuez gain, ikastetxearen proiektuak curriculumekoak ez diren prestakuntza-jarduerak ere jaso ditzake, ikasleen ekintzailtza-gaitasuna areagotzeko asmoz: ekimena, sormena, inteligentzia emozionala, erresilientzia, lidergoa, lorpenetarako orientazioa eta komunikazioa... lankidetzan jarduerak horietan, ikastetxetik kanpoko profesionalen eskutik. Prestakuntza-jardueretan, genero-ikuspegia aintzat hartu beharko da, eta bazter utziko da genero-rolen eta -estereotipoen erreproduktzioa.

Prestakuntza-jarduerak ikasleen eskola-orduetatik kanpo egingo dira.

1.d.– Era berean, kultura ekintzailea zabaltzen laguntzen duten eta deialdi honen babesean garatutako azpiproiektuak zabaltzeko helburua duten zabalkunde-jarduerak sartu ahal izango dira.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

2.a.– Zalantzarik gabe azpiproiektuak garatzeko lagungarri diren gastuak. Gastuak 2023ko abenduaren 23a baino lehen egin behar dira.

2.b.– Material suntsikorrak, tresna txikiak, tresnak edo software espezifikoak erostea, baldin eta zalantzarik gabe bat badatoz produktuaren prototipoaren garapenarekin edo zerbitzuaren diseinuaren garapenarekin. Ikastetxean egin behar da beti.

Finantza daitezkeen gastuek ez diote inbertsiorik eragin behar ikastetxeari; beraz, ez da diruz lagunduko produktu-unitate bat baino gehiago erostea, unitate bakoitzak 300 €-tik gorako gastua eragiten badu.

2.c.– Artikulu honen 4. puntuan jasota dauden eta curriculumekoak ez diren prestakuntza-jarduerak; bai eta, hala badagokio, zabalkunde-jarduerak ere (4. artikuluan 1.d. puntua): azpiegiturak alokatzea (espazioak, standak...), ekitaldiaren zabalkunderako eta komunikaziorako kanpaina, liburuxkak edo diptikoak, besteak beste.

3.– Diruz lagundu ezin diren gastuak:

Beharrezkoak ez diren edo enpresa-arloko simulazio-azpiproiektuaren oinarrian dagoen produktuaren prototipo baten garapenarekin edo zerbitzuaren diseinuarekin zuzenean lotuta ez dauden tresna edo software espezifikoaren erosketak; adibidez, enpresa-arloko simulaziorako softwareak.

Edonola ere, gastu horiek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.

5. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Gehienez ere 10.000 euro emango dira ikastetxeko. Ikastetxeak eskatutako aurrekontua aurreko zenbatekoa baino handiagoa bada, ikastetxeak izango du zuzkidura ikastetxeko azpiproiektuen artean banatzeko ardura.

2.– Baldin eta 2. artikuluan adierazitako zuzkidura nahikoa ez bada onartutako eskaera guztiei erantzuteko, zuzkidura hori hainbanatu egingo da, alegia, proportzionalki banatuko da onartutako eskaera guztien artean. Kasu horretan, ikastetxeak izango luke zuzkidura ikastetxeko azpiproiektuen artean banatzeko ardura.

3.– Zenbateko hauek bideratu ahal izango dira:

- Gehienez ere, emandako laguntzaren zenbatekoaren % 40 bideratu ahal izango da 4. artikuluan 1.c. apartatuan jasotako prestakuntza-jardueretarako.

- Gehienez ere, emandako laguntzaren zenbatekoaren % 10 eman ahal izango da 4. artikuluan 1.d. apartatuan jasotako zabalkunde-jardueretarako.

Beraz, emandako laguntzaren % 50, gutxienez, ikasleek enpresa-arloko simulazio-azpiproiektuak egitera bideratu beharko da.

4.– Prestakuntza-jardueren kasuan, gehienez ere 100 euro finantzatu ahal izango da emandako prestakuntza-ordu bakoitza.

6. artikulua.– Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin.

Agindu honetan araututako laguntzak bateraezinak dira xede bera duten erakunde publikoen edo pribatuen dirulaguntzekin edo laguntzekin.

II. KAPITULUA

ESKABIDEAK, HAUTAKETA ETA PROZEDURA

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Ikastetxeek baliabide elektronikoa erabiliz egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta izapide guztiak.

Izapidetze elektronikoa arautzen dute buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak (herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa) eta Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritzaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak, zeinaren bidez onartu baitzen Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa.

2.– Eskabide-inprimakia eskuratzeko administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak ditu) helbide honetan eskura daiteke:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1068006>

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, modu elektronikoa:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

Elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da. Hona hemen Erregistrora sartzeko esteka:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1068006>.

3.– Ikastetxearen legezko ordezkariak egin behar du eskabidea. Eskabide hori Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariari zuzendu behar zaio.

4.– Eskabideak eta haiei erantsitako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, ikastetxeak aukeratutakoaren arabera. Era berean, ikastetxe eskatzaileak prozeduran zehar hautatutako hizkuntza erabiliko da.

9. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabide bat egingo da ikastetxe bakoitzeko, eta agindu honetako eranskinak baino ez dira erabiliko. Baztertu egingo dira aurreko deialdietako eranskinak edo eskaneatutako eranskinak dituzten agiriak.

- 1.– eranskina. Eskaera-formularioa.
- 2.– II. eranskina. Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuaren fitxa.
- 3.– III. eranskina. Prestakuntza- eta zabalkunde-jardueren fitxa.
10. artikulua.– Aurkeztutako eskabidearen akatsak zuzentzea.

Eskabideak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzen dezala edo beharrezko agiriak aurkez ditzala. Hamar eguneko epea izango du eskatutako dokumentazioa aurkezteko. Horrelakorik egin ezean, ulertuko da eskaeran atzera egin duela (alegia, aurkeztutako eskabidea indarri gabe geratuko da), dagokion ebazpena emanda. Hori guztia Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

11. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak kudeatzea, eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria da atal horren arduraduna.

12. artikulua.– Hautaketa-irizpideak eta puntuazioa.

- 1.– Hautaketa- eta puntuazio-irizpideak honako hauek izango dira:

- 1.1.– Landutako ekintzailtza-gaitasunak (gehienez 5 puntu):

- Ekintzailearen ezaugarriak ezagutzea eta horiek ekintzailtzako gaitasun eta jarrera zehatzean nola adierazten diren jakitea (Puntu bat)

- Ekintzailtzaren arloko trebetasunekin bat datozen jarrerak eta portaerak garatzea: berrikuntza, sormena, autonomia, autokonfiantza, erantzukizun-sena, ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna, talde-lana eta lan-espirtua (Puntu bat)

- Konturatzea nolako garrantzia duen ekintzailtzaren gaitasunak, erronkei aurre egiteko eta helburuak lortzeko orduan (Puntu bat)

- Modu kritikoan pentsatzen ikastea eta ikasleak prestatzea, ideiak garatzean arriskuak har ditzaten (Puntu bat)

- Ikasleak egiten ari diren zikloarekin eta euren inguruarekin erlazionatutako enpresa-sarea ezagutzea, etorkizunean ekintzailtzarako aukera izan dezaten (Puntu bat)

- 1.2.– Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuan (gehienez 13 puntu):

- Horretan ari diren edo esparru horretan aurretiazko esperientzia duten ikasleen prestakuntza-zikloarekin dago erlazionatuta: (Puntu bat)

- Lotuta dago teknologia aurreratuen erabilerarekin, hala nola: digitalizazioa (errealitate birtuala, errealitate areagotua, adimen artifiziala, etab.), konektagarritasuna, robotizazioa eta automatizazioa, zibersegurtasuna, datuen azterketa (2 puntu).

- Jasangarritasuna jorratzen du: energia-efizientzia, ekonomia jasangarria, ekonomia zirkularra, 4.0 osasuna, Biozientzia eta Bioteknologiak, etab. (2 puntu).

- Proiektua industria-sektoreko enpresa bat sortzera bideratuta dago, eta/edo zerbitzu aurreratuen arlokoa da (2 puntu)

- Lotuta dago Garapen Jasangarriko Helburuen garapenarekin, eta/edo gizarte-ekonomiaren balioak jorratzen ditu (2 puntu)

- Dibertsitatea eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzen laguntzen du, edo pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko osagai soziala dauka: (2 puntu)

- Ez du genero-rolik eta -estereotiporik erreproduzitzen, eta/edo emakumezkoen ekintzailtza sustatzen du: (2 puntu)

1.3.– Ekintzailtza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzea (gehienez 6 puntu)

- Azpiproiektuen % 30 baino gutxiagok ekintzailtza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzeko dute (kooperatiba-sozietatea, lan-sozietatea edo beste bat): 2 puntu.

- Azpiproiektuen % 30etik % 60ra ekintzailtza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzeko dute (kooperatiba-sozietatea, lan-sozietatea edo beste bat): 4 puntu.

- Azpiproiektuen % 60k baino gehiagok ekintzailtza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzeko dute (kooperatiba-sozietatea, lan-sozietatea edo beste bat): 6 puntu.

1.4.– Ikastetxearen proiektuen eragina (gehienez 10 puntu):

a) Ikastetxeak emandako prestakuntza-zikloen kopurua, ikastetxearen proiektuari dagozkionak:

- Zikloen % 100-76 inplikatzeko badu: 5 puntu.

- Zikloen % 75-51 inplikatzeko badu: 3 puntu.

- Zikloen % 50-25 inplikatzeko badu: puntu bat.

b) Azken mailan dauden eta enpresa-arloko simulazio-proiektuak egingo dituzten ikasleak:

- Kopurua ikastetxeko azken mailan dauden ikasleen % 70 baino gehiago bada: 5 puntu.

- Kopurua baldin bada ikastetxeko azken mailan dauden ikasleen % 70 edo gutxiago, eta % 40 baino gehiago: 3 puntu.

- Kopurua baldin bada ikastetxeko azken mailan dauden ikasleen % 40 edo gutxiago, eta % 25 baino gehiago: puntu bat.

Gutxienez 20 puntu lortzen dituzten ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuei bakarrik eman ahal izango zaizkie laguntzak. (34 puntu gehienez ere).

13. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Balorazio-batzorde bat eratuko da, aurkeztutako eskabideak aztertu, ebaluatu eta hautatzeko. Batzorde hori kide anitzeko organo gisa jardungo da, eta pertsona hauek osatuko dute:

a) Batzordeburua: Ricardo Lamadrid Intxaurreaga, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria.

b) Batzordekideak:

- Pili Alonso, Ingurune Estrategikoei Aplikatutako Berrikuntza Arloko TKNIKAKo zuzendaria.

- Ergiña Urzelai, goi-mailako errendimenduko ikaskuntzan kultura ekintzailea garatzeko berrikuntza aplikatutako TKNIKAKo teknikaria.

- Miriam Lasagabaster Herrarte, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikaria; idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

14. artikulua.– Ebazteko, jakinarazteko eta publikotasuna emateko prozedura.

1.– Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du dirulaguntza, balorazio-batzordeak proposatuta.

2.– Ebazpenean, emandako eta ukatutako dirulaguntzen zerrenda jasoko da, eta prozeduratik baztertutakoena ere bai. Dirulaguntza eman zaienen kasuan, diruz lagundutako ikastetxearen proiektuaren izena eta emandako zenbatekoak adieraziko dira. Ukatutakoen kasuan, arrazoiak adieraziko dira.

3.– Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), eta hor argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak.

4.– Ebazpenaren jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»ren bitartez egin beharko dira:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

5.– Horrez gain, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpenen abisuak bidali ahal izango dizkie SMS edo posta elektronikoko mezuen bidez, eskaera-inprimakian jasotako telefono mugikorretara eta posta elektronikoko kontuetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen eginaren ondorioz izango.

6.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari. Errekurtsioa aurkezteko epea, berriz, hilabetekoa da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

7.– Ebazpena argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea amaitu eta erakunde interesdunari ebazpena jakinarazi ezean, ulertuko da eskabidea ezetsi egin dela.

15. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

- Lehenengoa, emandako guztiaren % 40, laguntza onartu ondoren ordainduko da.
- Bigarrena, % 60koa, justifikazioa egin ondoren ordainduko da (19. artikulua), IV. eranskinean (memoria ekonomikoa) eta V. eranskinean (azken memoria) azken dokumentazioa jaso ondoren.

2.– Laguntzak eman eta ordainduko dira, soilik baldin eta amaitu bada Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzaren edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzulketa- edo zehapen-prozedura oro.

16. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, eta, hala egokituz gero, helburu bererako edozein diru-sarrera edo baliabide lortzen bada, ebazpena aldatu ahal izango da, dirulaguntzaren araudian ezarritakoari jarraituz.

2.– Ondorio horietarako, Lanbide Heziketako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako dirulaguntzaren kopurua doitu egingo da, edo, hala egokituz gero, jasotako gehiegizko diru kopurua itzultzeko aginduko da.

17. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzultzeko prozedura.

1.– Dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala egokituz gero, jasotako zenbatekoa eta dagokion berandutze-interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, hauetako bat gertatuz gero:

a) Ikastetxe onuradunak aurkeztutako azken memoriatik (V. eranskina) ondorioztatzea jarduerak ez dituela lortu diruz lagundutako ikastetxearen proiektuan proposatutako gutxieneko helburuak.

b) Agindu honetan eta hura garatzen duten ebazpenetan xedatutako edozein betebeharrak edo baldintza ez betetzea.

c) Ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen konturako dirulaguntzen onuradunen edozein betebeharrak. Betebeharrak horiek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasota daude edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan.

d) Erakunde publiko edo pribatuen beste edozein dirulaguntza jaso izana, helburu berarekin.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko, azaroaren 11ko 1/1997 Errege Dekretu Legegilearen 53. artikuluan, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluaren eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 42. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

III. KAPITULUA

IKASTETXE ONURADUNEN BETEBEHARRAK, JUSTIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

18. artikulua.– Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako deialdiko laguntzen onuradun diren ikastetxeek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Emandako laguntza onartzea. Alde horretatik, erakunde onuradunek, esleitzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo hamar egun naturaleko epean berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat joko da.

2.– Diruz lagundutako jarduerak ikastetxearen urteko planean sartzea.

3.– Emandako dirulaguntza justifikatzea 19. artikuluan jasotakoaren arabera.

4.– Dirulaguntza eman den xede jakin horretarako erabiltzea.

5.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

6.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

7.– Jasotako dirulaguntzen berri emateko neurriak hartzea. Neurri horien euskarrietan –informatikoetan zein bestelakoetan– adierazpen hau sartuko dute: «Eusko Jaurlaritzak finantzatutako jarduera».

8.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

9.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua) ezarritako gainerako betebeharrak guztiak betetzea. Zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak -dirulaguntzen gaineko fiskalizazio-egitekoak dituztenez- eskatzen duten informazio guztia ematea.

10.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, ikastetxe onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskuragarri jarritako hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenen-erregistro-telematikoa/web01-s2oga/eu/>

Izapide hori egin behar da ordainketa egin ahal izateko.

Ofizios aztertuko da erakunde eskatzailea alta emanda dagoen erregistroan.

11.– Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke dagokion zerbitzuan, zeina erabilgarri egongo baita egoitza elektronikoa ere, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

19. artikulua.– Laguntzak justifikatzea.

1.– Ikastetxe onuradunek 2024ko urtarrilaren 8a baino lehen aurkeztu ahal izango dute egindako gastuen justifikazioa, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Txosten ekonomikoa eta egindako gastuaren laburpena (IV. eranskina). Emandako dirulaguntzari edo diru-zuzkidurari esleia dakizkiokeen fakturak eta lege onartutako beste edozein egiaztagiri erantsi behar dira. Fakturak eta egiaztagiri horiek jaulkipen-data adierazi behar dute, eta, hala badagokio, datu hauek: ordainketa-data, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, kontzeptua eta zenbatekoa.

Faktura eta/edo ordainagiri horiek 2023ko abenduaren 23a baino lehenagokoak izango dira.

Dirulaguntza ematen duen organoak, ausazko laginketa sinplearen bidez, egokitzat jotako egiaztagiri oro egiaztatu ahal izango du, dirulaguntza modu egokian erabili dela ondorioztatzeko adinako ebidentzia bildu arte. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari. Halaber, salbuespen gisa, jatorrizko dokumentua aurkezteko eskatu ahal izango dio, edo aurkeztutako kopia eratzeko; horretarako, jatorrizko dokumentua erakutsi beharko da.

- Amaierako ebaluazio-memoria. Bilakaera eta emaitzak adieraziko ditu, aurreikusitako helburuekin alderatuta (V. eranskina).

20. artikulua.– Jarraipena.

1.– Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak jarraipena egingo die diruz lagundutako ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuei, Hezkuntzako Ikuskaritzaren bidez, haiek egiten direla bermatzeko. V. eranskina.

2.– Diruz lagundutako ikastetxe-proiektuaren garapenean gorabeheraren bat gertatuz gero, TKNiKAKo Ikaskuntza eta Errendimendu Handiko Arloak egokitzat jo ahal izango du txosten bat egitea eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari bidaltzea. Txostenaren edukia araberak, zuzendaritza honek agindu hau betetzeko neurri egokiak hartu ahal izango ditu.

21. artikulua.– Ebaluazioa.

Proiektuaren amaierako memoriak (V. eranskina) honako hauek jasoko ditu:

1.– Erdietsitako lorpenak.

2.– Ikastetxeko azpiproiektuen garapena.

3.– Ikasleen parte-hartzea sustatzea.

4.– Egindako prestakuntza-jarduerak.

5.– Egindako zabalkunde-jarduerak.

6.– Proiektuak ikastetxean izandako inpaktuari buruzko balorazioa eta ondorioak,

7.– eta, beharrezkoa bada, izandako gorabeherak eta egindako aldaketak.

22. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Erakunde laguntzaileentzako eta lanbide heziketako ikastetxeentzako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: laguntza ekonomikoen eskabideak izapidetzea, parte-hartzaileak eta interesdunak identifikatuta. Erakunde laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Prozedura honetako datuen babesari buruzko informazioa helbide honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/rgpd/1068006>

Legitimazioa:

• Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

• 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

• 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

• Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia:<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/039900-capa2-eu.shtml>.

2023ko irailaren 22a, ostirala

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&ved=2ahUKEwjyqtjx7JqBAxXGRaQEHBiCNYQFnoECA8QAQ&url=https%3A%2F%2Fwww.boe.es%2Fboe_euskera%2Fdias%2F2018%2F12%2F06%2Fpdfs%2FBOE-A-2018-16673-E.pdf&usg=AOvVaw132NAerC51badClpng9Fg9&opi=89978449).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek jasotzen ez dituen alderdiak arautzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta laguntza eta dirulaguntza publikoei buruzko araudia aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari, bi hilabeteko epean. Bi epeok agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 5a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2023ko irailaren 22a, ostirala

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

(*) Nahitaezko eremuak

Eskatzailea*

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Erakundearen izena * _____ Telefonoa _____

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia * _____

Ikastetxearen kodea: _____

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena * _____

Telefonoa _____

Lehen abizena _____ Bigarren abizena _____

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia * _____

Sexua

Gizonezkoa Emakumezkoa

Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako bidea *

 Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza*

 Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Doako abisu-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpenen edo komunikazioen bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Helbide elektroniko edo mugikorreko zenbaki bat baino gehiago eman nahi izanez gero, puntu eta komaren [;] bidez bereizi.

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

2023ko irailaren 22a, ostirala

Erantzukizunpeko adierazpenak**Ikastetxearen** enpresa-arloko simulazio-proiektuaren izena _____**A) Materialak eta softwarea:** (Gutxienez eskaeraren % 50)

	Simulazio-azpiproiektuen izena	Zikloa	Gradua	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Ez-binarioak	Guztira	Aurrekontua: materialak eta softwarea (ez sartu prestakuntza eta zabalkundea)
P1								
P2								
P3								
....								
.....								
Guztira								

Ikastetxeak eskatutako azpiproiektuak, guztira: _____

B) Prestakuntza-jarduerak: (Ez gainditu eskaera osoaren % 40)

	Prestakuntza-jardueraren izenburua	Inplikaturako enpresa-simulazioko azpiproiektuak	Parte-hartzaile kopurua	Prestakuntza-orduen kopurua	Aurrekontua
PE 1					
PE 2					
PE 3					
.....					
Guztira					

Ikastetxeak eskatutako prestakuntza-jarduerak, guztira: _____

Prestakuntza-jardueretan inplikaturako azpiproiektuak, guztira: _____

C) Zabalkunde-jarduerak: (Ez gainditu eskaeraren zenbateko osoaren % 10)

	Zabalkunde-jarduera	Inplikaturako enpresa-simulazioko azpiproiektuak	Zabalkunde-ekintzaren data	Aurrekontua
ZJ 1				
ZJ 2				
ZJ 3				
.....				
Guztira				

Ikastetxeak eskatutako zabalkunde-jarduerak, guztira: _____

Zabalkunde-jardueretan inplikaturako azpiproiektuak, guztira: _____

D) Ikastetxearen proiektuaren aurrekontua guztira (A+B+C): _____**Ikastetxeak betetzeko:**

Ikastetxean emandako zikloak, guztira: _____

Simulazio-azpiproiektu guztietan inplikaturako zikloak, guztira: _____

Ikastetxean bigarren mailan* dauden ikasleak guztira _____

Azpiproiektu guztietan parte hartu duten bigarren mailako* ikasleak, guztira _____

*3 urteko iraupena duten zikloetan (Oinarrizko LH), hirugarren mailako ikasleak baino ez dira jarri behar.

Bateraezintasun-adierazpenak

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.

Erakundea	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Ebatzi gabeko dirulaguntza

Berariazko adierazpenak

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

Ezagutzen ditu 2023-2024 ikasturtean ikastetxe itunduetako Lanbide Heziketako (Oinarrizkoa, Erdi Mailakoa edo Goi Mailakoa) prestakuntza-zikloetako 2.*¹ mailako ikasleen ekintzaitzaren kultura sustatzeko deialdiaren baldintzak.

*1: 3 urteko iraupena duten zikloen kasuan (Oinarrizko LH), hirugarren mailako ikasleak.

Konpromisoa hartzen du Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatzen eta kontuan hartzen diren baldintzei eragiten dien aldaketa oro, baita edozein administrazioren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

Beste adierazpen batzuk

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

Ez izatea zehapen administratiborik edo penalik inor diskriminatzeagatik sexuagatik edo ez betetzeagatik emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko araudia (Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea).

Betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak.

Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan ezarritako inolako egoeratan.

Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira. Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu. Hori horrela dela egiaztatzen duten agiriak dauzka. Erakundeak administrazioren esku jarriko ditu aipatutako agiriak, hala eskatzen zaionean.

Itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean dago, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozeduraren batean.

2023ko irailaren 22a, ostirala

Prozedura

Lehenago aurkeztutako agiriak

Baimena ematen dut dokumentu hauek kontsultatzeko:

Dokumentuaren izena	Zein egunetan eman den	Zein organotan eman den

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duten agiriak.

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzeak

Araudi aplikagarriarekin bat etorritz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia–GSDN)
 - Zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)
- EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.).

Oharra: onarpenik eman ezean, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

_____,
(Lekua)_____
(Eguna)

(Ordez kariaren sinadura)

II. ERANSKINA

IKASTETXEAREN ENPRESA-ARLOKO SIMULAZIO-PROIEKTUAREN FITXA

IKASTETXEA:

Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuaren izena:

A) Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektua osatzen duten azpiproiektuak:

	Azpiproiektuaren izena	Negozio-ideiaren deskribapena (5-10 hitz)	Forma juridikoa
P1			
P2			
P3			
P...			

B) Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuan parte hartuko duten ikasleen zerrenda:

	Izena	Abizenak	NAN	Zein simulazio-azpiproiektutan parte hartzen duen (P1, P2, ...)
1.				
2.				
3.				
.....				

**Azpiproiektuaren zenbakia bakarrik adierazi (P1, P2, ...), ez da beharrezkoa izena.

C) Enpresa-arloko simulazio-azpiproiektu guztien bidez indartu edo lortu nahi diren ekintzailertza-gaitasunak

Enpresa-arloko simulazio-azpiproiektuak **(P1, P2, ...)	
	Ekintzailearen ezaugarriak ezagutzea eta horiek ekintzailertzakako gaitasun eta jarrera zehatzetan nola adierazten diren jakitea.
	Ekintzailertzaaren arloko trebetasunekin bat datozen jarrerak eta portaerak garatzea: berrikuntza, sormena, autonomia, autokonfiantza, erantzukizun-sena, ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna, talde-lana eta lan-espiritua.
	Konturatzea nolako garrantzia duen ekintzailertzaaren gaitasunak, erronkei aurre egiteko eta helburuak lortzeko orduan.
	Modu kritikoa pentsatzen ikastea eta ikasleak prestatzea, ideiak garatzen arriskuak har ditzaten.
	Ikasleak egiten ari diren zikloarekin eta euren inguruarekin erlazionatutako enpresa-sarea ezagutzea, etorkizunean ekintzailertzarako aukera izan dezaten.
	Beste batzuk

**Azpiproiektuaren zenbakia bakarrik adierazi (P1, P2, ...), ez da beharrezkoa izena.

2023ko irailaren 22a, ostirala

D) Zein eremu lantzen diren ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-azpiroiectuan, enpresa-simulazioko azpiroiectuen bidez:

Enpresa-arloko simulazio-azpiroiectua k** (P1, P2, ...)			Justifikazioa
	Horretan ari diren edo esparru horretan aurretiazko esperientzia duten ikasleen heziketa-zikloarekin dago erlazionatuta	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
	Lotuta dago teknologia aurreratuen erabilerarekin, hala nola: digitalizazioa (errealitate birtuala, errealitate areagotua, adimen artifiziala, etab.), konektagarritasuna, robotizazioa eta automatizazioa, zibersegurtasuna, datuen azterketa.	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
	Jasangarritasuna jorratzen du: energia-efizientzia, ekonomia jasangarria, ekonomia zirkularra, 4.0 osasuna, Biozientzia eta Bioteknologiak, etab.	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
	Proiectua industria-sektoreko enpresa bat sortzera bideratuta dago, eta/edo zerbitzu aurreratuen arlokoa da.	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
	Lotuta dago Garapen Jasangarriko Helburuen garapenarekin, eta/edo gizarte-ekonomiaren balioak jorratzen ditu.	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
	Dibertsitatea duten eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzen laguntzen du, edo pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko osagai soziala dauka.	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	
	Ez du genero-rolik eta -estereotiporik erreproduzitzen, eta/edo emakumezkoen ekintzailtza sustatzen du	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>	

**Azpiroiectuaren zenbakia bakarrik adierazi (P1, P2, ...), ez da beharrezkoa izena.

E) Enpresa-simulazioko azpiroiectu bakoitza (produktuaren prototipoa edo zerbitzuaren diseinua) garatzeko beharrak (material suntsikorra, tresnak, softwarea) eta aurrekontua:

Deskribapena eta kuantifikazioa; justifikazioa

Kontzeptua	Justifikazioa	Zenbatekoa
P1 ENPRESA-ARLOKO 1. SIMULAZIO-AZPIROIECTUA		
Material suntsikorra		

2023ko irailaren 22a, ostirala

Kontzeptua	Justifikazioa	Zenbatekoa
P1 ENPRESA-ARLOKO 1. SIMULAZIO-AZPIPROIEKTUA		
Tresnak		
Softwarea		
P1, GUZTIRA (Enpresa-arloko 1. simulazio-azpiroiektua)		
P2 ENPRESA-ARLOKO 2. SIMULAZIO-AZPIPROIEKTUA		
Material suntsikorra		
Tresnak		
Softwarea		
P2, GUZTIRA (Enpresa-arloko 1. simulazio-azpiroiektua)		
P3 ENPRESA-ARLOKO 3. SIMULAZIO-AZPIPROIEKTUA		

Azpiroiektu guztien ((P1+P2+P3+ ...) beharren aurrekontua, guztira: _____

F) Prestakuntza-jarduerak: (Ez gainditu eskaera osoaren % 40)

	Prestakuntza-ekintzaren izena	Parte hartzen duten enpresa-arloko simulazio-azpiroiektuak (P1, P2, ...)*	Parte hartzen duten ikasleen kopurua	Prestakuntzako aurrekontua
	PE 1			
	PE 2			
	PE.....			
	Guztira			

**Azpiroiektuaren zenbakia bakarrik adierazi (P1, P2, ...), ez da beharrezkoa izena.

Prestakuntza-jarduerak, guztira: _____

Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten azpiroiektuen kopurua, guztira _____

2023ko irailaren 22a, ostirala

G) Zabalkunde-jarduerak: (Ez gainditu eskaeraren zenbateko osoaren % 10)

	Zabalkunde-jarduera	Parte hartzen duten enpresa-arloko simulazio-azpiroiectuak (P1, P2, ...)*	Parte hartzen duten ikasleen kopurua	Zabalkundearen aurrekontua
ZJ 1				
ZJ 2				
A.D....				
Guztira				

*Azpiroiectuaren zenbakia bakarrik adierazi, ez da beharrezkoa izena.

Zabalkunde-jardueretan parte hartzen duten azpiroiectuen kopurua, guztira: _____

H) Ikastetxearen aurrekontu osoa:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aurrekontu osoaren gainera %
E: Simulazio-azpiroiectu GUZTIEN beharrak (P1 + P2 + ...), (prestakuntzarik eta zabalkunderik gabeko beharrak)		
F: Prestakuntza-ekintza GUZTIEN guztizko partziala (PE 1, PE 2, ...)		
G: Zabalkunde-ekintza GUZTIEN guztizko partziala (ZJ1, ZJ2, ...)		
Aurrekontua guztira, DENA barne hartuta (E+F+G)		_____

III. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA- ETA ZABALKUNDE-JARDUEREN FITXA

A) PRESTAKUNTZA-JARDUERA:

	Prestakuntza-jardueraren izena	Inplikaturako enpresa-erlako simulazio-azpiproiektuak (P1, P2, ...)*	Ordu kop.	Hasierako data	Amaierako data	Parte-hartzaile kop.	Zenbatekoa
PE 1							
PE 2							
PE...							
Guztira		Azpiproiektu kopurua, guztira___		_____	_____		

**Azpiproiektuaren zenbakia bakarrik adierazi (P1, P2, ...), ez da beharrezkoa izena.

a.1.– Aurrekontua, xehatuta

Prestakuntza-jarduera	Trebatzaileen kontratazioa	Behar diren materialak	Zenbatekoa
PE 1			
PE 2			
PE...			
Aurrekontua, guztira			

a.2.– Lortu nahi diren helburuak

Prestakuntza-jarduera (PE 1, PE 2, ...)*	
	Ekintzailearen ezaugarriak ezagutzea eta horiek ekintzailetzako gaitasun eta jarrera zehatzetan nola adierazten diren jakitea.
	Ekintzailetzaren arloko trebetasunekin bat datozen jarrerak eta portaerak garatzea: berrikuntza, sormena, autonomia, autokonfiantza, erantzukizun-sena, ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna eta lan-espiritua.
	Faktore pertsonalek eta pertsonen arteko faktoreek erronkei aurre egiteko eta helburuak lortzeko duten garrantziaz jabetzea.
	Modu kritikoan pentsatzen ikastea eta ikasleak prestatzea, ideiak garatzean arriskuak har ditzaten.
	Ikasleak egiten ari diren zikloarekin eta euren inguruarekin erlazioatutako enpresa-sarea ezagutzea, etorkizunean ekintzailetzarako aukera izan dezaten.
	Beste batzuk

**Prestakuntza-ekintzaren zenbakia bakarrik adierazi (PE1, PE 2, ...), ez da beharrezkoa izena.

B) ZABALKUNDE-JARDUERAREN AURREKONTUA:

	Prestakuntza-jardueraren izena	Inplikaturako enpresa-arloko simulazio-azpi proiektuak (P1, P2, ...)*	Ekitaldiaren data	Aurrekontua
ZJ 1				
ZJ 2				
ZJ....				
Azpi proiektu kopurua guztira eta aurrekontua guztira			_____	

*Azpi proiektuaren zenbakia bakarrik adierazi (P1, P2, ...), ez da beharrezkoa izena.

b.1.– Aurrekontua, xehatuta

Zabalkunde-jarduera (ZJ 1, ZJ 2, ...)*	Zerbitzuen kontratazioa	Behar diren materialak	Zenbatekoa
.....			
Aurrekontua, guztira			

**Zabalkunde-jardueraren zenbakia bakarrik adierazi (ZJ 1, ZJ 2, ...); ez da beharrezkoa izena.

b.2.– Zabalkunde-ekitaldian landuko diren helburuak

	Helburua
ZJ 1	
ZJ 2	
ZJ ...	

IV. ERANSKINA

MEMORIA EKONOMIKOA

Ikastetxearen izen ofiziala:

Ikastetxearen kodea:

Lurraldea:

Ekintzailatzaren kultura sustatzeko proiektuaren izena:

1. GASTU-EGIAZTAGIRIEN ZERRENDA

Beharrak (materialak, tresnak edo softwarearen erosketa-gastuak)					
Enpresa-arloko 1. simulazio-azpiproiektua (P1)					
	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1.a					
2.a					
3.a					
....					
Enpresa-arloko 1. simulazio-azpiproiektua (P1), guztira					
Enpresa-arloko 2. simulazio-azpiproiektua (P2) zabalgarrria					
1.					
.....					

Ikastetxearen proiektuaren premiak guztira* (azpiproiektu guztien batura)	
---	--

Ikastetxetik kanpoko zerbitzuen kontratazio-gastuak prestakuntza-jardueretan					
	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1.a					
2.a					
3.a					
.....					
Prestakuntza-jarduerak, guztira					

Ikastetxetik kanpoko zerbitzuen kontratazio-gastuak zabalkunde-jardueretan					
	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1.a					
2.a					
3.a					
.....					
Zabalkunde-jarduerak, guztira					

AZALPEN-OHARRAK:

Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua justifikatzerakoan, datu hauek eman beharko dira:

- Zenbakia: jaulkitzaileak emandako fakturaren edo ordainagiriaren zenbakia.
- Data: faktura edo ordainagiria zein egunetan eman zen.
- Jaulkitzailea: fakturaren edo egiaztagiraren jaulkitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena.
- Kontzeptua: fakturan edo egiaztagirian ageri den kontzeptua, eta, hori argia ez bada, horren azalpena.

2023ko irailaren 22a, ostirala

2. PROIEKTUAREN BALANTZE EKONOMIKOA

Kontzeptua	Eskatutako aurrekontua (eskabidean eta II. eranskinean)	Gastu erreala:	Ikastetxearen proiektuaren guztizko gastu errealaren gaineko ehunekoa
Enpresa-arloko 1. simulazio-azpiproiektuaren (P1) beharrak, guztira			_____
Enpresa-arloko 2. simulazio-azpiproiektuaren (P2) beharrak, guztira			_____
Enpresa-arloko 3. simulazio-azpiproiektuaren (P3) beharrak, guztira			_____
Enpresa-arloko ZABALGARRIA..... simulazio-azpiproiektuaren beharrak, guztira			_____
Ikastetxearen proiektuaren premiak guztira*			%
Prestakuntza-jarduerak, guztira:			%
Zabalkunde-jarduerak, guztira			%
Ikastetxearen proiektuaren gastuak, guztira			(€)

*Beharrak: soilik material suntsikorra, tresnak, softwarea

Behin betiko diru-sarrerak		
Finantzaketa propioa		
Finantzaketa publikoa	Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren dirulaguntza (deialdi hau)	
	Eusko Jaurlaritzako sailak	
	Foru Aldundia	
	Udala	
	EUDEL	
	Estatuko Administrazioa	
	Europako Batzordea	
	Beste batzuk	
Finantzaketa publikoa, guztira		
Behin betiko diru-sarrerak, guztira		

_____, _____ (a)

(Lekua)

(Eguna)

Ikastetxearen zigilua eta zuzendariaren sinadura edo sinadura digitala

V. ERANSKINA

IKASTETXEAREN EBALUAZIOAREN AMAIERAKO MEMORIA

Ikastetxearen izen ofiziala: _____

Ikastetxearen kodea: _____

Lurraldea: _____

1.- Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuaren izena:

--

2.- Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuaren bidez indartutako edo lortutako ekintzailertza-gaitasunak:

Hasierako helburua	Lortutakoa	Gaitasunak
		Ekintzailearen ezaugarriak ezagutzea eta horiek ekintzailertzako gaitasun eta jarrera zehatzetan nola adierazten diren jakitea.
		Ekintzailertzaren arloko trebetasunekin bat datozen jarrerak eta portaerak garatzea: berrikuntza, sormena, autonomia, autokonfiantza, erantzukizun-sena, ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna eta lan-espirtua.
		Faktore pertsonalek eta pertsonen arteko faktoreek erronkei aurre egiteko eta helburuak lortzeko duten garrantziaz jabetzea.
		Modu kritikoan pentsatzen ikastea eta ikasleak prestatzea, ideiak garatzean arriskuak har ditzaten.
		Ikasleak egiten ari diren zikloarekin eta euren inguruarekin erlazionatutako enpresa-sarea ezagutzea, etorkizunean ekintzailertzarako aukera izan dezaten.
		Bestelakoak: ...

Oharrak (hautazkoa):

--

2023ko irailaren 22a, ostirala

3.- Aurkeztutako ikastetxearen proiektuan hasieran sartutako azpiproiektuen garapena, sortu diren gorabeherak eta egindako aldaketak

Simulazio-azpiproiektuaren izena	Gauzatu al da?			Parte hartu duten ikasleak		Gorabeherak eta aldaketak
	Bai	Ez	Partzialki	Hasieran	Amaieran	
.....						

Egindako azpiproiektuak, guztira: _____

Parte hartu duten ikasleak, guztira: _____

4. Prestakuntza-jarduerak

Prestakuntza-jardueraren izena	Prestakuntza-orduen kopurua	Parte hartu duten ikasleak	
		Aurreikuspena	Amaieran
.....			

Egindako prestakuntza-jarduerak, guztira: _____

Parte hartu duten ikasleak, guztira: _____

5.- Zabalkunde-jarduerak

Jardueraren izena	Noiz egin den	Parte hartu duten ikasleak	
		Aurreikuspena	Amaieran
.....			

Egindako zabalkunde-jarduerak, guztira _____

Parte hartu duten ikasleak, guztira: _____

2023ko irailaren 22a, ostirala

6.- Ikastetxean izandako inpaktuari buruzko balorazioa eta ondorioak

_____, _____ (a)

(Lekua)

(Eguna)

Ikastetxearen zigilua eta zuzendariaren sinadura edo sinadura digitala